

Ze barri?

2000
URTARRILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

36 zkia.

Urletik Landetara

**PRESOAK ETA IHESLARIAK
ETXEAN ETA BIZIRIK**

Elkarrizketa:

Mario Padilla, txistularia

Erreportaia:

Arxorrotx

Hirugarren Munduko Elkarteak

Eskoriaizarrok munduan:


Marokko Afrikako atean

ONGI ETORRI!
Barraletara

**Presoekin elkartasunean
gose greba**



XSARA PICASSOren MERKATORATZEA



ORAIN DUZU AUKERA. ONDO AUSNARTUTA INBERTITU



CITROËN Xsara (excepto Xsara Picasso)
HASTA 500.000+80.000 PTAS
 PTAS. DE AHORRO* PLAN PREVER



CITROËN Xantia
500.000+80.000 PTAS
 PTAS. DE AHORRO* PLAN PREVER



Nuevo CITROËN Saxo
300.000+80.000 PTAS
 PTAS. DE AHORRO* PLAN PREVER



HILABETE BUKAERA ARTE

* Jendearentzako Preziorekiko aurrezkiak, biak Penintsula eta Balearetan gomendatuak (BEZ eta Matrikulazio zerga barne) Batera-ezinak. Stockean dauden turismoetan erabilgarri.

CITROËN - e k ZUGATIK ASKO EGIN DEZAKE

ZATOZ IKUSTERA:

Talleres Chapime, S. Coop. Ltda.

Araba Etorbidea, z/g. • ARRASATE
 Tf. 943 79 45 22 - Faxes: 943 77 10 47



CITROËN

Ze barri?

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Imanol Garmendia
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Lourdes Martinez

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday

INPRIMATEGIA:

Eguzkigrafi, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Eskoriatza eta Gatzagako
Udalek diruz lagundutako
aldizkaria

GURE BERBETAN

PARKE EOLIKOA: Iritziak, datuak eta Koherentzia

Azken aldian, bai Ze-Barrin, Teleskon eta Eskoriatzako kaleetan, hainbat eztabaida entzun ditugu Elgeako Parke Eolikoari buruz. Idatzi hau osatzeko, entzundako komentarioak hartu, eta datuak bilatzen saiatu naiz. Ez dut hitz tekniko edo konplikatua erabiliko, horrela idatzia denok ulertu eta beharbada kritikatu ahal izateko.

HAINBAT DATU

• **Zarata:** Errotak zaratatsuak ziren energia eolikoaren sorreran. Baina teknikariak gauza simple batetaz konturatu ziren: Errota zaratatsuak kalitate txarrekoak dira, eta etekin gutxiago ematen dute. Hau dela eta, errota gero eta ixilagoak dira, ez arrazoi ekologikoagaitik, ekonomikoagaitik baizik. Gainera, eta logikoa denez, mendian ixiltasun gehien dituen momentuak haizerik gabekoak dira, eta une hoietan errotak geldi egongo dira.

• **Hegaztiak:** Errota baten palaren puntaren abiadura, gutxi gora behera, 100 km/ordukoak izan daiteke. Ez du ematen, ez, txori arrunt bati denbora emango dionik paretik kentzeko. Itxuraz, txori gehien hiltzen diren egunak pasaren garaia eta laino egunak dira. Gaur egun, dena dela, animaliak istripuz hiltzearen errudun handiena, argi ta garbi, automobila da.

• **Pistak:** Parke eolika eraikitzeke ezinbestekoa izango da pistak eraikitzea. Hala ere, gaur egun eta etorkizunean gure pisten errudun nagusiak ez dira, parke eolikoak izango, explotazio forestalak baizik.

• **Non jarri:** Azken urteotan, Euskal Herrian hainbat zientzilarik eta teknikaririk aizea neurtzen milaka ordu pasatu dituzte. Ondorioak, hitz gutxitan honako hauek: Leku egokienak mendiak dira, baina ez altuegiak (800 metro ingurukoak), eta ez ta ere tontor zorrotza dutenak, tontor zorrotzak aizea nahastu egiten bait dute. Hori jakinda, Elgea leku aproposa da, noski, Eskoriatzarra ez denarentzat, eta Elgearen edertasuna maite ez duenarentzat.

ENERGIA EZ KUTSAKOR BAKARRA: AURREZTEA

Ez da egia, inondik inora, energia eolika ez kutsakorra denik. Izan ere, orain arte ez da asmatu kutsatzen ez duen energi iturririk. Azkenean, aurrez aipatutako arazoak, handiak edo txikiak, kutsadura hutsa dira.

Orain arte kutsatzen ez duen energia iturri bakarra gure amandre eta aitajaunek asmatu zuten, Iberdueroko faktura lehenengo aldiz ikusi zutenean: Gutxiago gastatzea. Aintzinako ohitura simpleak jarraituz (etxean jertsea erabili, argia behar ez denean itzali, behar ez dena ez erosi edo kontsumitu) sortutako energiak bikoitza iraungo zuen, horrela beharrak eta produzitzeko instalazioak erdira jaitxiz.

ALTERNATIBAK ETA KOHERENTZIA

Bukatzeko, eta konklusio erara, bi erreflexio:

• **Elgean ez ... non bai?** Parke eolika ez dugula nahi esatea, berez, gauza errezena da. Hori, bere horretan, astelehenean lanera joatea ez dugula nahi esatea bezelakoa da. Galdera garrantzitsuena erantzun honen ostean dator: Parke eolikoaren ordez, zer? Edo, Elgean ez bada, non? Euskal Herriak produzitzen duen kilowatio bakoitzeko, hamabi gastatzen ditu. Eskoriatzaren kasua oraindik okerrago, herri industrialia izanda kontsumitzaile handia bait da, eta ez du inolako energiarik produzitzen. Gaur egun gure diruarekin beste leku batzutan sortutako energia erosten ari gara, guk sortutako kutsadura beraien etxeetara eramanez. Ez genuke pentsatu beharko egoera hau aldatzeko zer egin dezakegun? Galdera hauei erantzunik ez badiegu ematen, energia nuklearrarekin gertatu dena berriz ere gertatuko da. Lortu genuen, bai, nuklearrak gelditzea, baina arrakasta honek, azkenean, ekologismoaren porrot hutsa sortarzi du. Nuklearrei alternatibarik eman ez genienez, interes ekonomikoak soluziorik errezenaren bila joan ziren: Ixil, ixilik, ikatz eta petrolioaren produkzioa igo, nuklearren arazo soziala baztertuz, baina kutsadura askoz gehiago sortuz.

• **Arazo larrienak lehenengo konpondu:** Elgeako parke eolikoak baditu, bai, bere alde txarrak. Baina Eskoriatzak askoz ere arazo ekologiko larriagoak ditu: Industriak sortzen duen kutsadura, gero eta kotxe gehiago, autopista txapuzeroaren meatsua, erreka difuntua, eta pinuz beteriko mendiak, besteak beste. Guzti horiek alde batera utzita, parke eolikoaren kontra joango gara? Hori gabon zaharreko afariaren tripakadaren ostean kafea sakarinarekin hartzearen parekoa da.

Juanma Pagalday

LABURREAN

2000 efektua Eskoriatzan

Ustez hainbeste kalte ekarri behar zituen 2000 urtea etorri da eta Eskoriatzan, munduan bezala, ez du ia-ia inolako eraginik izan. Salbuespena Dorleta Elkartea: nonbait bertako ordenadoreak data arazo txiki bat izan zuen eta garaiz konpondu izan ez balitz hile bukaeran hileko kontsumizioak ez ezik 1980etik hona apuntatutako kontsumizio guztiak kobratuko zituen. Antza denez arazoa sor zitekeela antzemandan zeuden eta sortutako egun berean konpondu zuten. Laburbiltzeko bazkide batek bota zuena: "ondorio bako arazoa ez da arazoa, anekdota baizik".

Kiroldegiko ordutegi berria

Eskoriatzako kiroldegiak urte berriarekin ordutegi berria hasi du. Ondoko hau izango da aurrerantzean izango duen ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: goizez 9,30tatik 12,30tara
Arratsaldez 14,30tatik 21,30tara
Larunbata: goizez 9,30tatik 12,30tara
Arratsaldez 14,30tatik 20,30tara
Igandea: 9,30tatik 13,00tara.

Mundukide fundazioa

Mundukide fundazioak bultzatu duen, Garapen Komunitarioarako Esperientzien Trukaketa Programa dela eta, hirugarren munduko 8 pertsona datoz bailara honetako errealitatea ezagutzera (kooperatibak, elkarte kulturalak...) eta bide batez euren esperientziak guri erakustera.

Hau horrela izanik, pertsona hauentzako etxebizitzak behar ditugu Eskoriatzan edo inguruan. Martxo osorako alokatu nahi genituzke etxebizitza hauek, beraz norbaitek aukera hori eskaintzerik balu, asko eskertuko genioke lehenbailehen gurekin harremanetan jartzea. (Harremanetarako telefonoa: 606 302 360 Leire edo Nerea).

Gabonak argazkitan



Aurtengo gabonetan urtero bezala, olentzero izan genuen gabon egunean herrian bisitari. Urtarriaren 5ean aldiz erregeak etorri ziren opariz bete bete eginda.



Gabonetan izandako eskaparate lehiaketan irabazle izan genuen Viteri denda irudietan. Guztira 12 denda aurkeztu ziren lehiaketan eta oso maila ona erakutsi zuten.

Euskal presoen eskubideen aldeko gose greba Eskoriatzan

Urte hasieran, Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean, hainbat eta hainbat ekintza burutu ziren Euskal Herriko puntu ezberdinetan. Horien artean aipatzekoa Arrasateko pilotalekuan burutu zen gose greba. Gipuzkoa osotik etorritako jendea izan genuen bertan, 400 lagun inguru bildu ziren bertan. Hauen artean bi Eskoitzar izan ziren, Dorleta Kortazar eta Larraitz Iparragirre.

Gure herrian ere izan genuen bost egunetako gose greba. Arrasatekoaren ondorengo astean izan zen, alegia, urtarrilaren 5 eta 9 bitartean, Kultur Etxean. Oso erantzun ona izan zuen Eskoriatzako gose grebak, eta jendea mugitu zela esan beharra dago, 48 lagun izan genituen orotara.

Gose grebaren barnean kontzentrazioak, hitzaldiak, eta bestelako ekintza batzuk ere izan genituen.

Kontzentrazioak, eguerdi eta ilunkara guztietan egin ziren, Euskal Presoen eskubideen alde. Hitzaldiak, aldiz bi izan ziren; bata Gestoras-ekoek emandakoa eta bestea Senideak-ekoek emandakoa.

Larunbat gauean, kontzentrazioa egiteaz gain giza kataia egin zen herri guztian zehar bertan jende ugari bildu zelarik. Igandean, eguerdiko hamabietan, amaitu zen Gose Greba eta bertaratuek salda goxo bat edan ahal izan zuten, Jubilatuek antolatutako ekitaldi honetan. Ez ziren falta izan ez txalaparta ez eta dantzariak ere. Hauen ondoren gose grebalariek agiri bat irakurri zuten, beraien aldarrikapenak azalduz. Azkenik eta gose grebarekin amaitzeko bazkaria izan zen.

Aipatu behar gose grebak iraun duen egun hauetan Gose Greban izan



direnek presoek ia 400 eskutitz idatzi dizkietela elkartasuna adieraziz.

Urtarrilak 27an Greba Orokor deialdia Euskal Herri mailan

Eskoriatzan izan genuen deialdi honen oiartzunik: eguerdian herriko plazan Udaleko langileak, HUHEZIKo ikasle-irakasleak, Almeneko zenbait ikasle eta herritar ugari bildu ziren

Euskal Preso eta Errefuxiatuen aldeko kontzentrazioan eta aipatzekoa ere, presoekiko solidarioak Eskoriatzan izan genituela.

Grebak, komertzio eta irakaskuntzan izan zuen erantzunik handiena. Enpresa munduan, aldiz, grebak ez zuen oiartzunik izan.



LIZARRALDE
KIROLAK

Foruen Plaza, 1-2. San Andres - **Arrasate** - Tf. 943 79 91 47
Olakua, 16 - **Oñati** - Tf. 943 78 29 86

egizabal
oinetakoak

ARRASATE - Ferrerías, 9 - Tf. 943 79 66 01
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 761228

Dokumentazio Zentru berria ALMENEN

2000 urteko berriarekin Informazio eta Dokumentazio Zentrua (IDZ) inaguratuko da. Ikastolan zegoen eskaerei ezin zitzalon erantzunik eman aurreko Mediatekarekin, tokia txikia gelditu zen eta askotan talde ezberdinei ezezkoa eman behar zieten, derrigorrez zerbait behar zen eta Zentru berri honek behar guztiei erantzutea espero dugu.



Dokumentazio zentru berrian hurrek informazioa bilatzen ikasten dute.

Zerbait gehiago ulertzeko IDZk betetzen duen esparrua Eskola Liburutegi batek betetzen duen esparrutik harantz doa. ALMENEk bere hasiera-hasieratik eduki du liburutegi bat, bere arduradun eta guzti: Aita Ambrosio, Ander, Maia, Mila, Ana Rosa gogoratzen ditudan izen batzuk. Tokiz aldatuz joan zen eta azkenik bere tokia aurkitu duela esan dezakegu, egun hauetan inaguratzen ari garen IDZ berria.

Gaur dugun egoera ez da lehen ematen zen egoera berdina, alde batetik informazioak inguratzen gaitu, edozein tokitan jasotzen dugu informazioa, edozein lekutan suertatzen dena segundu batean mundu guztian zabaltzen da. Informazioaren kantitatea eta abiadurak menperatzen gaitu, informazioa duena munduaren jabe da. Eta komunikazio bideak asko zabaldu dira, euskarri desberdinak dituzte, paperak, telebistak, interneti tokia utzi dio, ez da beharrezkoa ere ordenadore bat edukitzea, telefono mugikorrarekin edozein informazio poltsikoan edukiko dugu.

Hau dela eta Informazioa nola

jaso dezakegun, nola kritikoki kontrolatu dezakegun, nola berregitura dezakegun jakiteko beharrezkoa dugu IDZ. IDZren I-ak, informazioa esan nahi du. Informazio mota ezberdinak edukitzea euskarri ezberdinetan: aldizkari, liburu, dossier, transparentziak, CDI, CD-ROM, DVD eta datorren urteetan agertuko dana.

IDZren D-ak Dokumentazio hitza azaltzen du. Informazioa Dokumentu bihurtzen dugu beretz jabetzen garenenan, gure helburua ez da informazioa ikasleari aurreratzea, ez horixe, gure helburua aurrerago doa, ikasleak bere ezagutza indartzeko, bereganatzeko, egiteko, prozesatzeko informazioa non jaso dezakeen, nola landu dezakeen eta nola berregitura dezakeen ikasi behar du. Ikasle bakoitzak bere Ezagutza eraikitzeke, kanpotik jaso dezakeen ezagutzaz jabetu behar da,

eta hor dago D horren esanahia.

Honekin adierazi nahi dudana zera da: IDZ, esparru fisiko bat dela, baina bereziki "filosofia" baten erantzuna soilik da. Eta filosofia horretan ezin dugu baztertu zerbait ikatea, zerbait jakitea atsegina dela konturatzea. Horregatik IDZren argiak, diseinuak, koloreak -urdira eta horia- atsegintasun hori bultzatu nahi dute; horregatik animazioari garrantzia emango diogu.

Hauek dira, bertan ditugun materialak zenbakitan: 10000 liburu, 53 aldizkari, 1000 bideo, 150 CD ROM, 11 ordenadore, denak internetera konektatuta, 2 TB, diapositibak eta transparentziak ikusteko pantaila.

Guzti hori baliogarria izango da irakasleak eta ikasleak euren ezagutza prozesuan erabiltzen duten eran, eta horregatik ziur gaude erabiliko dela, orain arte egon den eskaerak jarraituko duelako.

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*

MARIO PADILLA

Urteetan Santa Ageda mutilekin ibilitakoa

Mario Padilla Otxandixon jaio zen 1928an eta 36 urte zituela etorri zen Eskoriatza aldera. Ordudanik ezaguna zaigu Mario txistu eta danbolinarekin Eskoriatzako kaleetan zehar.

- Urte askotan aritu zara Santa Ageda mutilei dantzan erakusten, ze aldaketa egon dira denbora honetan zehar?

- Lehen kapazitate gehien zuten bi beteranoek erakusten zieten kintoei dantzan egiten afari baten truke, gero hori aldatu egin zen eta kuadrila bat hasi ginen kintuei dantzan erakusten.


- Denboran zehar kintuek zein borondatez hartu izan dute tradizio edo festa hau?

- Lehen serioago hartzen zen, kantuen joatea, mezetara joatea... Orain ganora barik abesten da, bakoitza bere aldetik. Talde moduen

Erakusteko errazagoa zen, betidanik egon da dantza taldie eta batzuk gutxi entsaiatuta erraz ateratzen zuten. Kantu aldetik ordea, beti izan da nahiko barregarri.

- Seguru anekdota xeble bat baino gehiago ezagutu duzula urteetan zehar, ba al daukazu gogoan horitakoren bat?

- Normalien ez da esateko gauzarik egoten, beno mozkorren bat jauzi edo... Joan zen urtean, ez da



ordea, badauka berezitasun bat, neskaren inguruan lau mutilek dantza egitea ez dut beste inon ikusi. Aretxabaletan ere desberdin egiten dute.

- Eta hona hemen Mariok botatzen duen proposamena.

Derrigorrezko soldaduzka amaitzen denean Santa Ageda festa honek ez du zentzurik izango, eta beste orientazio bat eman beharko litzaioke. Adibidez, afari baten truke edo zerbait ordainduta, kintoek beste egun garrantzitsu batzuetan ere dantza egin dezakete. Horrela, San Pedrotan, San Juan bezperan, Aitxorrotz egunien animazio gehiago egongo litzateke eta herriko folklorea aberastuko litzateke.

“Eskien doienak umil eta apal joan behar du eta hori galdu egin da.”


joan beharko litzateke, makilakin erritmoa ondo eramaten, eskien doienak umil eta apal joan behar bait du eta hori galdu egin da.

- Dantza taldea egoteak eraginik izan al zuen urte horietako kintoen dantza egiteko moduan?

anekdota baina, etxafleruak txarto urten zuen eta enparantzako erlojua izorratu zen.

- Kinto dantza aldatu al da historian zehar?

- Ni hemen nagoenetik beti izan da berdina. Eskoriatzako dantzak



DORLETA

 Aranburuzabala, 22 -bajo

 Tfnoa.: 943 71 51 20

 ESKORIATZA



ALZA

Sukaldeko tresneria

 Aingeru Ibiltokia, 3

 Tf. 943 714131/943714256

Txalaparta

Jatetxea

 Tel.- 943- 71 50 46

ATXORROTX elkarteak hirugarren mundurako bi proiektu berriren atarian

Atxorrotx Hirugarren Mundurako Elkartea, isilean lanean diharduen Eskoriatzako lagun talde bat dugu. Beraien lanaren helburua, hirugarren munduko herrialdetako jendeek laguntzeaz gain, gure ingurunekeo gizabanakoak gai honen inguruan sensibilizatzea da. Ahal dugun neurrian gure kontsumismo egarri hau gutxitzea eta benetako berdintasunaren bideari ekitea.

L Atxorrotx Elkartea duela 3 urte sortu zen, eta bere lehen ekimena Costa Marfilen eraikitako jostunen tailerra izan zen. Bouaké herrian kokatu zen "jostunen tailer eskola koop", eta egun ia amaiturik dute lehen proiektu hura. Emakumea da lehen proiektu honen helburua, bera baita Boli Kostan familiaren pisua hartzen duena eta hala ere gizonaren menpe egoten da. Beraz, Atxorrotx-en lana ez dago bakarrik hirugarren

mundura begira, baizik eta hirugarren munduko talde marjinatuenei begira dago. Beraz, 1999. Urtean, bi urtetako lan gogorraren ondorioz, proiektua aurrera eramatea lortu zuten, aurrekontua 5 milio t'erdikoa izan zelarik. Orain proiektua ia bukatuta dago eta azkeneko zehaztasunak bakarrik falta dira, hau da, jostundegia babestuko duen horma jasotzea ingurune guztian.

Aurreko proiektuaren arrakastak


animatuta, beste bi proiektu eskuartean dituzte Atxorrotx taldekoek. Esan behar da, hiru urte hauetan beraien lanak izan duela oihartzunik eta kideen nahiz laguntzaileen kopuruak gora egin duela.

St Camille de Lellis Proiektua:

Lehenengoa bezalaxe Boli Kostan kokatzen da proiektu hau. Afrikako herrialde txiroenetakoa dugu Kosta Marfil eta lehen esan bezala bertako jende marjinatuenei laguntzeko dira bertan burutu dituzten proiektuan. Bigarren proiektu honek, buru gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentru batean hiru oilategi eraikitzea du helburu. Herrialde honetan buru gaixotasunak dituztenak oso baldintza txarretan bizi dira eta horregatik St Camille de Lellis-eko zentzura eramaten dituzte. Bestela, buruko gaixotasunez gain bertakoen mesprezua ere jasan behar izaten dute. Gehienetan euren gaixotasuna sasi erlijioen kontua dela pentsatu ohi da (espiritu gaiztoak hartutako pertsonak direla, alegia); gehienetan bizi gutzirako enbor bati lotzen dituzte halako gaixoak.

Beraz, esan genezake, proiektu honen helburua, orain arte tratatu txarrak jasan dituzten pertsonen lana eskaintzea eta gizarteratzeko independentzia ematea dela.

Aipatu, proiektu hau martxan dela eta hiru oilategi egitea duela helburu, bakoitzean arraultzak jarriko dituzten 1450 oilo egongo



Hondurarrak dirulaguntza behar dute beraien etxeak berreraikitzeko.

carpinteria
leniz

AROSZTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

**MIRENTXU
TABERNA**

Tfnoa.: 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

**ANGEL
Aseguroak**

Autoak, Etxeak, Bizitza,
Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-
715203 • ESKORIATZA

**TOKI ALAI
Taberna**

Tfnoa.: 943 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**


dira. Aurrekontua berriz, 6.300.000 pta.koa da.

Copán- Ruinas Proiektua:

Aurreko bi proiektuak Afrika aldean kokatzen baditugu, hurrengo hau Ertamerikako Hondurasen kokatzen da. Bertako egoera ere ez da ona, nahiz eta Afrikakoarekin konparatuz nahiko ona den. Mitch Hurakanak ere ez die beraien pobrezia handitu besterik eta batez ere familia asko etxebizitza barik utzi ditu. Proiektu honen helburua, familientzako etxebizitzak jasotzeko materialak erosten laguntzea da. Ondoren beraiek etxeak jaso ditzaten. Beraien etxeak adobeak, egurra, porlana eta hondarra behar dute, eta hauek erosteko dirua falta zaie.

Copan-Ruinas Honduraseko Iparraldean kokatzen den lurraldea da eta bertan indijenen komunitate ugari daude. Etxe hauek indijenen komunitateetarako izango liriteke.

Proiektu honen aurrekontua 2.000.000 pezetakoa da,



Teilak eskuz egiten dituzte Copan-en.

batez laguntza txiki bat emanaz.

Atxorrotx-en beste helburuak

Atxorrotx Elkarteak proiektu hauek gauzatzeaz gain, herriko eta bailarako jendea informatzea eta sensibilizatzea du helburu. Gure gizartean dugun kontsumismo eta deshumanizazioaz ohartzeko eta aldatzen saiatzen mentalizatzeko. Kontzientzia bat sortu nahi da biztanlegoan gai honen inguruan iritzi bat izateko, eta laguntzetan parte hartzeko.

Aipatu, bailaran badirela beste hainbat Elkarte eginkizun hau aurrera eramaten dutenak, Aretxabaletan nahiz Arrasaten ere badira hainbat Elkarte. Denen artean, Eroskin "Comercio Justo" izeneko denda bat antolatu dute, non herrialde hauetako produktuak erosteko aukera daukagun, bide

Atxorrotx Elkarteari diruz lagundu nahi izanez gero:

- Euskadiko Kutxa: kontu zenb.:30350044870440014049
- Kutxa: kontu zenb.: 21010038540010689693
- Central Hispano: kontu zenb.: 00490721532110214923

Eta beste era batean lagundu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan: Tel. 943 715 385



MURU

Autos Muru S.L.
 Araba Etorbidea, 3
 20500 ARRASATE
 Tfnoa. 943 792716



HONDA
 motorrak

AUTO KONPONKETAK

Motorren konponketa eta salmenta



HONDA



YAMAHA



PIAGGIO



GILERA



PEUGEOT



FIEJI

GOLO

gazte moda

Tel.. 943 71 45 61



VILLAR

APAINDEGIA

Tfnoa.: 943 715042

MAROKKO, Afrikako atean

Gertuko egiten zaigun leku bat da Marokko Euskal Herrian; helduentzat, familia guztietan dagoelako bertan soldadutza egin duen norbait; gazteentzat berriz, azken urteotan oporretarako leku apropos bihurtu delako. Galdetuz gero, asko izan dira bertan egondako lagunen artean joateko eman dizkidaten arrazoiak: Beste kultura eta bizimolde bat ezagutzeko gogoia, lurralde eta paisai berriak ikusteko nahia, gertu dagoen eta merkea den toki exotiko bat aurkitzea... Eta hala da bai, Gibraltarreko lurmuturretik hegoalderantz jotzea, Europa zaharra atzean utzi eta Afrikan sartzea baita.



Marokkon paraje oso ezberdinak aurkitu ahal daitezke.

Kontraste izugarritz betea dagoen lurraldea da Marokko. Iparraldean dauden Rif mendi katetik hasi eta Sahara basamorturaino. Bertan egondakoen artean ezagutzen dut jendeaz eta paisaiez maiteminduta bueltan etorri den lagun asko, baino baita guztiz kontrakoa ere; nirekin lan egiten duen neska batek, Magreb aldean egin zuen bidaiak arrazista bihurtu zuela aitortu zidan. Eta ez da harritzekoa, ferrya utzi eta Ceutako muga zeharkatzen dugunean, bi munduren arteko muga zeharkatzen baitugu.

Mugari buruz ari garenez, gomendiotxo bat. Adi ibili zaitezte papeleoak azkarrago egitearen eskusan laguntza eskaintzera etortzen direnekin (ezta funtzionarioak badira ere), zuen sosen bila baitatoz, gero ere gertatuko zaizuen bezala. Zoazten autoko paperak zuen izenean ez badaude, irten aurretik lortu ezazue Ertzaintzak sinatutako jabearen baimen bat, eta eskatu aseguru etxean nazioarteko beste bat, horren kontura ere jasoko duzue disgusturen bat bestela. Bidean aurrera egiten goazen eran, muga inguruko bizitza mixerableaz egingo dugu topo. Jendea bide ertzetan pilatzen da kostaldean, taxiak jendez lepo eginda doaz, auto gidari zoroek ez dute ezer errespetatzen eta dena da zikinkeria eta zalaparta. Askotan sentsazio bera izango dugu nazio honetako hiri handietara sartzean, jendeak gogaitu egingo zaituzte ziur. Lasai "jai", hasi zaitez herri honen erritmora ohitzen.

Marokkora joateko beste modu batzuk, hegazkinez Marrakech-era hegal egin edo eta antolatutako bidaietan autobusez pasatzea dira. Oso kontutan edukitzeko aukerak dira hauek eroso eta segurtasunez bidaiatzea nahi bada, baina agentzietan eskaintzen diren bidaiarik gehienek beti utziko dute aldean autoz aurki zenezakeen altxorren bat.

Chefchauen, Rif mendietako altxor txikia

Iparraldean kostaldea eta Asilah bezalako herri arrantzaleak atzean utziz, Rif mendien magaletik gora eginez Chefchauen-era jotzea da jende gehienak egiten duena, Tetouan ere gelditu gabe pasatuta. Abuztuan joanez gero bero egingo digu Marokko osoan, baina udaberrian iparraldea zelai orlegiz jantzia aurkituko dugu. Ia 2.500 metro arte igotzen diren mendi malkartsuen babesean, nekazariak kifia landatzen dute, marihuana landarea, berarekin mundu osoan Marokko ezagun egiten duen hatxisa egiteko. Zuen autoan bazoazte, matrikula ikustean "Kaixo laguna!" esango dizuen bat baina gehiago aurkituko duzue bidean. Zuri eta urdinez pintatutako Medinako kale estu eta malkartsuek, kaleko giro bizi baino lasaiak, jatetxe merke eta politék, ingurune eta tenperatura ederrak, eta

Esperientzia polita da benetan gauean duna batera igo eta ilargiaren argitan Sahara ikustea.

erosketatarako toki aproposa izateak, jende asko egun gutxi batzuetarako ere hona erakartzen dute. Hala ere, bistakoa da toki honetan diru eta interes gehien pizten duen kontua hatxisa dela. Kontuz ibili zaitezte gai honekin. Batez ere gazteak bazarete, bertakoak lotsa gabe etorriko zaizkizue munduko kostorik onena saltzera, eta konpetentzia gogorra dute beraien artean. Ez iezaiozue bati baino gehiagori erosteko hitza eman, liskarra sor zenezakete bestela. Eta ez ahaztu Marokkon ere txokolatea erretzea, eta nola ez, mugaz beste aldera pasatzea, legez kanpokoa dela.

Xauenetik hegoaldera joaz, bi



Egunsentia Oasisean.

aukera ditugu gure bidaiarekin jarraitzeko: Kostaldea jarraituz Rabat eta Casablancara jaitxi edo eta Ekialderago dauden Meknes eta Fezerantz jotzea. Kostaldekoak hiri industrializatu eta masifikatuak dira, baina Meknesen eta batez ere Fezen aurkituko dugun Medinako giroa ere aurki genezake bertan. Kostaldeko bidea ona da eta azkarra, beraz kontutan eduki bidaia antolatzerakoan.

Gero, Marrakechera jo dezakegu, hiri polita eta bizia, dunda barik. Fezetik hegoaldera sartuaz, Marokkok duen lurralderik ederrenetan sartuko gara. Erdiko Atlasetako edertasuna eta bere duna bereberrak atzean utziz, Mideletetik hegoalderantz aurkituko ditugun lautadek er-Rachidiatik behera dagoen deserturantz hurbilduko gaituzte. Erfud izango da Saharan sartu aurretik aurkituko dugun leku "eroso" bakarra.

Beste bizimolde bat aurkituko dugu desertuan; ezer ez dagoen lekuan bizitzearena, alegia. Merzugan, dunak asten diren lekuan, ostatu txiki asko daude eta dunen artean lo egiteko irteerak egoten dira egunero. Esperientzia polita da benetan gauean duna baten puntara igo eta ilargiaren argitan Sahara bere handitasunean ikustea.

Basamortutik mendebaldeko bailaratarantz egin genezake ihes. Todraq, Dades eta Zizeko bailarek edeneko lorategiak dirudite

udaberrian, mendien magaletik iretzen diren errekei esker. Udako berorik handienean ere, ikusgarria da Tinerhirreko palmerala, kanaletan barrena zabaltzen den uraren murmurioen eta txorien kantuen artean atsedean egiteko toki ederra. Paraje hauetan kanpinean lo egitea da komendagarriena, eta eskeintza zabala dago horretarako. Eskalatzaileek ere "kantxa" polita dute Todrako zinturreko horma gorri eta ikusgarrietan. Bailara hauek historian zehar bizi izan dituzten gerra eta liskarren testigu, kashbak, lur gorritz egindako gazteluak aurkituko ditugu edonon, eta interesgarrienak bixitatuz ibilaldi politak egin daitezke.

Mendizaleek Marrakechetik hegoaldera, Imilera jo beharko dute Toubkal mendiaren inguruan, Aste Santu aldean mendiko eskia eta udaran trekkinak egiteko. Kostaldea maite duenak, berriz, Atlantikoko ur hotzen ertzean dagoen Essaouirara jo dezake, edo urrunago ere bai, Aghadirrera, bere golf zelai ederrengatik famatua den hiria.

Aipatu ditzakegun lekuen zerrenda luzea da, eta mila sentsazio ezberdin jaso ahal izango dituzu herri honetako bazter bakoitzean. Beldurrik gabe baina tentuz ibiliz, guretzat irekita dagoen Afrikako atea irekitzea abentura polita eta guztiz gomendagarria da dunda barik. Ausartzen al zara?

San Blas egunean ezer eramaten al duzu bedeinkatzera?




JUANITA APERRIBAI

Bai. Janak bedeinkatzera ematen ditut. Lehengo gauza bat da eta jarraitu eitten dou. Orain San Blas-etan kandelak ematen ditugu.




CARMEN MARTINEZ

Bai, hilaren 2an, behintzat gailetak edo antzekoak eramatea oso ondo iruditzen zait gainera.



J. INAZIO URIBARRI

San Blas egunean, artua, sagarrak, fruituak, holako gauzak eramaten ditut bedeinkatzera.




NICOLAS AKIZU ORMAZABAL

Monjek bai, beraiek eramango dute zerbait, baina nik ez, ez dut ezer eramaten bedeinkatzera.



ANTONI MARTINEZ

Bai, Txokolatea, gailetak, eta kandela ere bai. Tradizio bat da, eta horregatik joaten gara bedeinkatzera.



CLAUDIO BLAZQUEZ

Ez. Inoiz ez naiz joan, baina nire etxeok bai, nire amak badu ohitura hori.

SEAT

Udalaitz, S.L.



Musakola auzoa, z/g.

Tf. 943 791880 - 943 792125 - 943 792411

Fax 943 792125

20500 **ARRASATE-MONDRAGON**

Ze Barri? X. Alean agertutako "Quisiera ser alcalde... Eskoitzakua" iritzi artikuluari erantzunez, ondorengo eskutitza jaso dugu aldizkarian. Etorkizunera begira, iritzi artikuluek sortu ditzaketen eztabaidak direla eta, erabaki dugu Gure Berbetan alorrean doazen idatziak izen abizenez sinatuta izatea.

Oportunismo politikoa ala neglijentzia?

Maiatzeko "Ze Barri?" aldizkarian agerturiko "Quisiera ser alcalde... Eskoitzakua" ... artikulua irakurtzeak hurrengo gogoeta egitera bultzatu nau.

Lehenik eta behin, aipatu nahi dut, arestian aipaturiko D.M.III.ak idatzitako artikulua honetan, badaudela bi egoera kontutan hartu beharrekoak:

Batetik Udal hauteskundeak ospatu baino aste bete lehenago kaleraturiko ale bat izatea, eta bestetik alkategai zen pertsona bati buruz egindako deskalkifikazioak.

Bi zirkunstantzia hauek, jarraian aipatuko dudan hausnarketa egitera eta iradukizunak burutzerat bultzatu naute:

Lehenengoz, betidanik pentsatu izan dut kritika, bere orokortasunean hartuz, zerbait aberasgarria, positiboa dela, beti ere hau konstruktiboa den heinean.

Bigarrenez, kritika hau, destruktiboa izanik ere, (deskalkifikazioak izaki) eskubide osoa du batek, hau luzatzeko, horrela bermatzen baitu legeak (D.M.III. arentzat seguraski ezaguna izango den bezala).

Hirugarrenez, uste dut, horrelako transzendentzia eta eragina izan dezakeen gai batean, ez dezagun ahaztu bi egunetara hauteskundeak ospatu zirela eta alkategai baten deskalkifikazioak aurreritzi batzuk zor

zitzakeela irakurlearengan. Kautelaz jokatu behar dela, honela ihardespen eta kontradikzio eskubideak bermatu beharko lirateke, ezinezkoa izan baita garaiz defendatzea, alkategai batentzat eta berak ordezkatzen duen alderdiarentzat ekarri zitzazkeen kalteak areagotuz.

Kautela falta horrek bi ondoriotara eraman nau: Batzuen aldeko oportunismo politikoa batetaz baliatu nahi izatea edota neglijentzia bat izatea. Aldizkariaren eta Eskoriatzarron onerako orokorrean, espero dut bigarren hau izatea kautelaz jokatu ez izanaren kausa.

(Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak)

Bukatzeko, gizatasun falta izugarria iruditzen zait pertsona bat iraintzea, deskalkifikatzea, ororentzat edo gehiengoentzat ezezagunak diren sigla batzuetan ezkutatuz zeren eta iraindua izan denarentzat indefentsioa sortzen baitu eta arrisksua iruditzen zait eta ausardia eza, iraina eta deskalkifikazioaren aurrean ezkutatzek ematen dion inpunitateaz baliatzea, nahiz eta ulergarria eta errespetagarria iruditu hainbat kasutan, izenik eman nahi ez izatea.

ESKORIATZAN 1999ko abenduaren 14ean

HAIZE ZELAIA

ESKORIATZAKO GAZTEEI

Zuengana zuzentzen gara, gure ekintza eta jardunaldiei buruzko informazioa eskuragai izan dezazuen. Badira hilabete batzuk gure herrian sumatzen zen pasibitate aktibatzeko asmotan bildu ginela eta honela, hainbat ekitaldi burutu ditugu; besteak beste, Aitzorrotz eguneko akelarrea, San Pedrotan burututako Euskal jaia, Eskoriatzako II. Herri olinpiadak, kontzertuak... Orain arteko ekintzak jai giroan murgildurik izan badira ere, gure helburua ez da inolaz ere horrela jarraitzea. Gazte giroa ez baita jai giroan bakarrik murgiltzen, beste alor batzuk ere badirela aipatuz. Hori horrela izanik, hainbat jardunaldi burutzeko asmotan gabiltza; Batetik, hanka palo, txalaparta, tam-tam... ikastaroak eta bestetik, hitzaldiak, kontzertuak, eta nola ez, EKINTZA DEIGARRIAK!!! Ekintza ,ikastaro, eta denadelakotan parte hartzeko aukera Eskoitzar guztientzat izango dela eta zuen partehartzea bultzatuko genuke denon artean Eskoitzak pairatzen duen egoera honi aurre egiteko.

Besterik gabe, aukera hauek aprobetxatu eta Gazte Asanbladako bileretan biltzeko gonbitea onartuko duzelakoan, larunbatero 3-etan Gazte Asanbladako lokalean ospatzen diren bileretan aurpegi berriak ikusi asmoz agurtzen gara.

Gazte asanblada

Edozein gairi buruz, zure iritzia azaldu nahi izanez gero, utz ezazu zure idatzia Kultur Etxean, eta guk Zabalik atalean argitaratuko dugu. Eskutitza argitaratua izan dadin beharrezkoa da, erritziak izen-abizenekin sinatuak edo taldeen kasuan taldearen izenarekin aurkeztea.

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura

RELE

Faustino Legazpia

Tel. 943 71 40 72

BEKAK

- Bergarako Udalaren eskutik, "Justo Garate Arriola" bekak, **historiaren arloan ikerketa-lanbat** burutzeko. Lana urte batean zehar burutu beharko da eta euskaraz izan beharko da. Epea: otsailak 15.
- "ICO" Fundazioak **postgradu ikasketak egiteko** dirulaguntzak aurrikusi ditu, bai estatu espainiarrean bai atzerrian doktore ikasketak edo ikerkuntzak egiteko. Epea: otsailak 28.
- Alemaniako DAAD zerbitzuak eta La Caixa Fundazioak, **Alemanian hainbat ekintza burutzeko** dirulaguntzak aurrikusi ditu: ikasketa eta ikerkuntza lanak burutzeko, alemaniera ikasteko, ikasketa bidaiak egiteko, udako unibertsitateetan parte hartzeko, e.a. Guzti hauetarako epe ezberdinak daude.

LEHIAKETAK

- Arrasateko Udaleko Emakume Sailak, "**martxoak 8"ko kartel lehiaketa** antolatu du "emakume! Hartu hitza eta erabakia" lelopean. Epea: otsailak 18.
- AED elkarteak urteroko "Arrasate Lehiaketak" deitu ditu, **komikia, euskara testigantza, irri erreportaia, ipuina, poesia eta bertso-paper** arloetan. Lanak aurkezteko epea: otsailak 11.

IKASTAROAK

- Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu du.
 - Alboka ikastaroa.** Urtarrilaren 29tik ekainak 17ra, larunbat goizetan, Arrasate Musikalena. Matrikula 3.000pta/2.000 pta ikasle edo langabeentzat.
 - Txalaparta ikastaroa:** otsailaren 11tik maiatzaren 13ra. Ostiraletan, eta larunbatetan, Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 2.000 pta.
- AEDren Ekin emakume elkarteak **eskulan ikastaroa** antolatu du astearteetarako eta dantza ikastaroa astelehenetan.
- Leintz Zeramika Eskolak **zeramika ikastaroa** antolatu du. Astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara burutuko da elkarteak Arrasaten duen lokalean.
- Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenero **perkusio ikastaroa**, 6etatik 9ak arte eta Arrasateko Gazteluondo Ikastolan.

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

- Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitzeko behar duzun informazioa.

JAIOTZAK

- Leire Astiasaran Villar 1999.12.7
- Amaur Belategi Madina 1999.12.18
- Maite Irazabal Gurrutxaga 1999.12.21
- Irati Moto Garcia de Salazar 2000.01.01



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udalzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-714688
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-714688
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

LUDOTEKARAKO LAGUNTAILEA behar du AXTROKI Euskara Elkarteak

- Eduki beharrekoak: - Euskara maila
 - Ikasketak
 - Haurrekin esperientzia

Curriculum-ak otsailaren 10 a baino lehen Kultur Etxean entregatu. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu telefono zenbaki honetara: 943 715 238

ORAIN DELA



1 948ko KINTOAK: Argazki hau, 1948ko otsailaren 5ean ateratakoa da. Garaiko Santa Ageda mutilak agertzen dira, koadrila ederra osatuz. Behean ezkerretik hasita: Felix Belategi, Raimundo Badiola, Luis Eceiza, Joaquin

(Errenteriako txistularia), Antonio Iregui, Markaide soinujolea, Jose M^a Etxebarria. Goian ezkerretik hasita: Pepe Barandiaran, Juan de Dios Aguiriano, Joxe Diaz de Gereñu, Gaztelu, Ibarramendi, Ambrosio Elorrieta, Santitxo.




Lasagabaster Gazte Moda

DENDA BERRIA Zerkaosteta 7. ARRASATE. 943 79 86 14




MILURTE BERRIKO IKASTOLA





ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ESKORIATZAKO
BULEGOAN INFORMATU ZAITEZ**



**Matrikula egunak:
Otsailak 7tik - 18ra**

Orduetgia:



Arizmendi

943 79 31 32

San Pedro z/g
Jose Arana Ikastola